



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 28a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko zer egingen duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako espetxe berriaren proiektua dela-eta sor daitezkeen arazoaren aurrean, José Javier Monzón Romé jaunak egingina (7. or.).

—Galdera, jakiteko zein bideragarritasun plan jarriko da abian Nafarroako Unibertsitate Publikoak paira ez dezan iragarritako itotze ekonomikoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egingina (8. or.).

—Galdera, jakiteko Foru Komunitateko administrazioeko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zenbat kontratuk ekarri duten berekin lanpostuak sortzea eta behin betikoz betetzea eta, horrenbestez, lanpostu hutsak eta haiei dagozkien lan eskaintza publikoak, 2007an eta 2008an. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, jakiteko noiz egingen diren Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidearen 15,5 kilometro puntuko lanak. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, NA-2101 eta NA-150 errepideen arteko bidegurutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluko kideak izendatzea (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurri buruzkoa.

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurri buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2008ko irailaren 11ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Irizpena

Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2008ko urriaren 22an eta 23an egindako bileretan onetsia.

Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurri buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Egoera ekonomikoari dagokionez, jardueraren desazelerazio argia bizi dugu egun, bai nazioartean bai Espainian, eta horrek, dudarik gabe, eragina izanen du Nafarroako ekonomian. Egoera honen jatorrian nazioarteko finantza krisia, petrolioaren prezioen gorakada nabarmena eta lehen-gaien garestitze orokorra daude; Espainian, gainera, etxebizitzaren sektorea, duela gutxira arte ekonomia nazionalaren eragileetako bat izan dena, gelditu egin da bat-batean. Aurka ditugun fenomeno ekonomiko horiek eragin handikoak dira eta, epe laburrean nahiz ertainean, aurrean testuinguru ekonomiko zaila izanen dugula iradokitzen dute.

Nafarroako Gobernuak, egoeraz jabeturik, egoera ekonomiko negatibo honi aurre egiten ahale-

gintzeko xedeari begira jarri eta ekintza politikoa-ren zenbait ildo jorratzen aritu da azken hilabeteotan. Ekimenek printzipio hauek dituzte gidari:

– Jarduera ekonomikoa sortzea enpleguen desagerpenari mugak jarri ahal zaizkion sektoreetan, bereziki eraikuntzan, etxebizitzaren zaharberrietan eta azpiegitura publikoetan.

– Pertsonen eta familien lagunduko dieten erforma fiskalak bultzatzea, PFEZaren bidez, bai eta enpresei ere, BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren kudeaketaren bidez.

– Enpresa ekimenak arintzea, abalak lortzeko bideak erraztuz eta, horren ondorioz, ekimen pribatuko proiektuetarako finantzaketa.

– Gastu publikoa kontrolatzea, zergen bidezko diru-bilketa txikiagoak defizit fiskal handirik ekar ez dezan.

Ekimen publiko horietan guztietan, Nafarroako Gobernuak behar zen adostasuna bilatu du beste indar politikoen artean, batetik neurriak gauzatzeko sostengua lortu behar zelako eta, bestetik, beste alderdi politiko garrantzizko batzuek Nafarroako ekonomiaren egoera konplexu honi aurre egiteko ekintzak proposatzen parte-hartze aktiboa izateko asmoa adierazia zutelako.

Esparru zabaleko lehen neurria "NAFARROA 2012" PLANA izan da, Nafarroako Gobernuak 2008ko apirilaren 21ean onetsia, 2008ko apirilaren 14an Nafarroako Alderdi Sozialistarekin akordioa izenpetu ondoren. Plan horretan aurreikusirik dago 2008tik 2011ra bitarteko urteetan 4.508,9 milioi euroko inbertsioa egitea ekipamendu eta azpiegitura publikoetan. "Nafarroa 2012 plana" 2008ko maiatzaren 23an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Nolanahi ere, Nafarroako ekonomia suspertzeko neurri garrantzitsu hau finantza eta zerga arloetako neurriekin osatu behar da, eta horretarako

prestatu da foru lege hau, bai eta aurrerago kasuan kasuko arau mailarekin ezarriko diren beste ekimen batzuk ere.

Neurri fiskalek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren esparruei eragiten diete.

Lehenbizikoan neurri ugari hartu dira, gehien bat Nafarroan 2009tik 2011ra etxebizitzak zaharberritzea sustatzeko politika aktiboaren inguruan, eta halaber PFEZaren bidez zama fiskala nabarmen murrizteko xedearrekin, zergak ordaintzen dituzten errenta baxuenen kasuan.

Hortaz, ohiko etxebizitza zaharberritzearen kontzeptua malgutu egin da, tratamendua Balio Erantsiaren gaineko Zergak ematen dionaren antzekoa izan dadin; nabarmen handitu da orain arte indarra izan duten kenkariaren zenbatekoa; eta pizgarri berezi bat ezarri da zaharberritzeko lanek energia eraginkortasuna hobetzeko neurriak ere hartzen dituzten kasurako.

Bestalde, laneko kenkaria aldatu da, helburu hauekin:

1. Lan etekinen zerga tratamendua hobetu, eta zergaren ekitatea eta zuzentasuna areagotzea.

2. Zergaren progresibitatea areagotzea, kenkaria handiagoa izatea onuragarria baita laneko errenta txikientzat, eta onura hori zenbat eta eskalan altuago egon tartea orduan eta txikiagoa da. Horretarako, lau tarte ezarri dira kenkaria kalkulatzeko, orain dauden hiruen orde.

3. Familiak erabilgarri duten errenta handitzea. Kenkaria handitzeak baliabide erabilgarri gehiago emanen dizkie zergadunei, eta horrek lagunduko du barneko eskaera bultzatzen, bai kontsumoarena bai inbertsioarena, produkzioa sustatzen eta jarduera handiagoa sortzen.

Foru lege honek ezartzen duen lan kenkari berria handiagoa da zenbatekoari dagokionez eta, lehen esan bezala, lau tarte ezarri dira hura kalkulatzeko.

Lehendabiziko tartean 9.100 euroko lan etekin garbiak edo txikiagoak dituzten zergadunak daude; horien kasuan kenkaria egungo 850 euroko zenbatekoa izatetik 1.290 euro izatera pasatuko da, eta beraz 440 euro gehiagokoa izanen da.

Bigarren tartean 9.100,01 eurotik 10.600 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten zergadunak daude. Subjektu pasibo hauen lan kenkaria 1.290 eurokoa izanen da gehienez, eta murrizten joanen da gutxienera (1.140 euro) iritsi arte, eragiketa hau eginez: 1.290 euroko zenbatekoa ken etekin garbi horien zenbatekoaren eta 9.100 euroren

arteko kendura bider 0,1 eginik ateratzen den emaitza.

Hirugarren tartean 10.600,01 eurotik 45.800 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten zergadunak daude. Subjektu pasibo hauen lan kenkaria 1.140 eurokoa izanen da gehienez eta murrizten joanen da gutxienera (700 euro) iritsi arte, eragiketa hau eginez: 1.140 euroko zenbatekoa ken etekin garbi horien zenbatekoaren eta 10.600 euroren arteko kendura bider 0,125 eginik ateratzen den emaitza.

Laugarren tartean 45.800 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten zergadunak daude; horiek 700 euroko kenkaria aplikatuko dute. Horrekin alderaturik, esan beharra dago egungo araudian 700 euroko kenkari finko hori 10.600 eurotik gorako lan etekinak dituzten zergadunek aplikatzen dutela.

Elbarritasuna duten jarduneko langileen kasuan, kenkaria 1.500 eurokoa izatetik 1.750 eurokoa izatera pasatuko da, elbarritasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65 baino txikiagoa dela frogatzen denean; % 65eko elbarritasuna edo handiagoa duten jarduneko langileek, berriz, 3.250 euroko kenkaria aplikatuko dute, egungoa, 3.000 eurokoa, baino hobe, beraz. Laburbilduz, langile horien kenkaria 250 euro handiagoa izanen da, kontuan harturik gaur egun kenkariaren zenbatekoa ere zenbateko finko bat dela.

Sozietateen gaineko zergaren esparruan, hasterko, libre amortizatu beharreko elementuen unitateko zenbatekoa hirukoiztu egin da, eta 600 eurokoa izatetik 1.800 eurokoa izatera pasatu da. Horrekin batera, amortizazio azkarraren koefizientea igo da enpresa txikientzat, eta amortizazio taulan aurreikusitako koefizienteak bider 2 egin ahal izanen dituzte, orain arte aurreikusitako 1,5aren orde.

Finantzen arloan, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, abalak emateko, gehienez ere 30.000.000 euro eginen dutenak, jarduera ekonomikoaren sektore zehatz batzuetara zuzendutako inbertsioen finantzaketan laguntzeko.

Foru lege honek hamabi artikulua, bi xedapen gehigarri eta indarra hartzeari buruzko azken xedapen bat dauzka; denborari dagozkion ondorioak zehatz-mehatz aurreikusirik daude kasu bakoitzean.

I. KAPITULUA

Neurri fiskalak

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa.

Bat. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.1 artikulua a) letraren b') azpiletrak ondotik ematen den testua izanen du. Testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

“b’). Xede nagusia etxebizitzaren egitura, aurreko aldea, estaldura edo antzekoak sendotuz eta tratatuz berreraikitzea duen obra, baldin eta lanen kostu osoak % 25 gainditzen badu erosketaren prezioa, betiere erosketa hori lanak hasi aurreko bi urteetan egin bada, edo, bestela, lanen kostu osoak etxebizitzak lanak hastean zeukan merkatuko balioa gainditzen badu. Ondorio horietarako, etxebizitzaren erosketa prezioari edo merkatuko balioari lurzoruari dagokion kostu proportzionala kenduko zaio.”

Bi. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62. artikulua 5. idatz-zatiak ondotik ematen den testua izanen du. Testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

“5. Laneko kenkaria.

1. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro.

b) 9.100,01 eurotik 10.600 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro ken etekin garbi horien eta 9.100en arteko kendura bider 0,1 eginik ateratzen den emaitza.

c) 10.600,01 eurotik 45.800 eurora bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.140 euro ken etekin garbi horien eta 10.600en arteko kendura bider 0,0125 eginik ateratzen den emaitza.

d) 45.800 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

2. Elbarritasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa izanik, jarduneko langile gisa aritu eta lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboan kasuan, aurreko idatz-zatian aipatzen den kenkaria 1.750 eurokoa izanen da.

Elbarritasun maila % 65ekoa edo handiagoa dutezentzat kenkaria 3.250 eurokoa izanen da.

3. Bosgarren idatz-zati honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu foru lege honetako 59.1 artikuluko eskala lan etekin garbiei aplikatzen heldu den emaitza.”

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 16.1 artikulua d) letrak testu hau izanen du:

“d) 1.800 eurotik beherako unitate balioa duten ibilgetu materialaren elementuak.”

3. artikulua. Ohiko etxebizitza zaharberitzeko eta energia eraginkortasunerako laguntza plan berezia.

Ohiko etxebizitza zaharberitzeko lanak 2009tik 2011ra bitarte, bi urteak barne, hasten diren kasurako, hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitu zaio ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginari:

“Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Ohiko etxebizitza zaharberitzeko eta energia eraginkortasunerako laguntza plan berezia.

Testu bategin honen 62. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zergaldian ohiko etxebizitza zaharberitzeko ordaindutako diru-kopuruek ondoko tratamendua izanen dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, ohiko etxebizitzako inbertsioagatik kuotan egin beharreko kenkariari dagokionez, baldin eta etxebizitza eta hiri ondarea zaharberitzeko babesari dagokionez legez eskatu daitezkeen baldintzak bete eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako egiaztagiriaren bidez frogatzen badira:

1. Oro har, testu bategin honen 62.1 artikulua a) eta g) letretan ezarritako kenkariaren portzentajeak hiru puntu handiagoak izanen dira, hurrenez hurren % 18koa, % 21ekoa eta % 33koa.

2. Zaharberitzeko lan horiek energia eraginkortasuna hobetzekoak ere barne hartzen badituzte, testu bategin honen 62.1 artikulua a) eta g) letretan ezarritako kenkariaren portzentajeak bost puntu handiagoak izanen dira, hurrenez hurren % 20koa, % 23koa eta % 35ekoa.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egiaztatuko du lan horiek 2009tik

2011ra bitarte -bi urteak barne- hasi direla eta energia eraginkortasuna hobetzekoak ere barne hartzen dituztela, hala bada, etxebizitzaren zaharberritze babesturako espedienteen kalifikazio zedulak luzatuz. Hasitako obratzat hartuko dira zaharberritze babestuaren behin-behineko kalifikazioa 2009-01-01etik 2011-12-31ra bitarte eskatu eta jasotzen dutenak. Sektoreko araudi berariazkoan erregelamenduz ezarri ahalko da zaharberritzeko lanek zein kasutan barne hartzen dituzten energia eraginkortasuna hobetzekoak.”

4. artikulua. Enpresa txikientzako ondare elementuen amortizazio azkarra.

2009tik 2011ra bitarte, biak barne, hasitako zergaldietarako, hamalagarren xedapen gehigarria gehitu zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari:

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Enpresa txikientzako ondare elementuen amortizazio azkarra.

Jardunean 2009. urtea baino lehenago hasi diren ondare elementuen gainean foru lege honen 14.7 artikuluan ezarritako amortizazio koefiziente gehitua erabiltzeko eskubidea duten subjektu pasiboek aplikatu ahal izanzen dute, elementu horiei dagokienez, ofizialki onetsitako amortizazio tauletan aurreikusten den amortizazio koefiziente altuena bider 2 eginik lortutako emaitza.

Era berean, foru lege honen 14.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, ibilgetu materialeko elementu berriak eta ondasun higiezinak inbertsio berriak, foru lege honen 50.1.b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren zergaldian enpresa txikien esku jarriak badira, eta jardunean 2009an, 2010ean edo 2011n hasi badira, ofizialki onartutako amortizazio tauletan ezarritako gehieneko amortizazio koefiziente bider 2 egitearen emaitzak adierazten duen koefizientearen arabera amortizatu ahal izanzen dira.

4. bis artikulua. Hipoteka-bermea duten maileguak berritzeko eskritura publikoek, maileguaren epea luzatzeari buruzkoak direnean, ez izatea Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Testu Bategineko 22.1 artikuluan ezarritako kargarik.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Testu Bategineko 22.1 artikuluan ezarritakoa gorabehera –testu bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–, ez dute karga hori izanzen eta paper arruntean emanen dira halako eskritura publikoak non ohiko etxebizitza eskuratzeko, eraikitzeko edo zaharberritzeko emaniko

mailegu hipoteka-bermedunen epe-luzaketa jasotzen den; hain zuzen ere, 2008ko apirilaren 22tik zenbatzen hasi eta bi urteko epean emanikoak.”

II. KAPITULUA

Inbertsioari laguntzeko finantza neurriak

5. artikulua. Abalak emateko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari abalak emateko, gehienez ere 30.000.000 euro eginen dutenak, hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzetan.

6. artikulua. Esparru objektiboa.

Ondoko inbertsioak finantzatzeko operazioetan eman ahal izanzen dira abalak:

a) Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak maiatzaren 17an emaniko 155/2007 Foru Aginduan industrian inbertitzeko aurreikusitako eskualdeko laguntzen araubidearen babesean egin daitezkeenak.

b) Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak maiatzaren 17an emaniko 156/2007 Foru Aginduan enpresa txiki eta ertainek, eskualdeko laguntzen mapan sarturik ez dagoen eremuan, industrian inbertitzeko aurreikusitako laguntzen araubidearen babesean egin daitezkeenak.

c) Eskualde-laguntzen 2007-2013 bitarteko mapan sarturik dauden Nafarroako eremuetan, nekazaritzako elikagaien sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzeko Nafarroako Foru Komunitateko estatu-laguntzei buruzko araudiaren babesean egin daitezkeenak (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak maiatzaren 14an emaniko 146/2007 Foru Aginduan aurreikusitakoak).

d) Salbuespen gisa, Nafarroako Gobernuak ezartzen dituenak, Nafarroako ekonomiarako duten interes berezia dela eta.

7. artikulua. Abalen onuradunak.

Abalak honako hauek jaso ahal izanzen dituzte:

a) Aurreko artikuluko a), b) eta c) letretan deskribatutako laguntzetako bat lortu baina foru lege honek indarra hartzen duen egunerako inbertsioa amaiturik ez dutenak.

b) Eskaera foru lege honek indarra hartzen duenetik 2009ko abenduaren 31ra bitarte egiten dutenak.

8. artikulua. Abalen gehieneko indarraldia.

Abalen gehieneko indarraldia hamar urtekoa izanzen da ematen den egunetik hasita.

9. artikulua. Emanen diren abalen zenbatekoa.

Abalen zenbatekoak 60.000 eurotik 600.000 eurora bitartekoak izanen dira, baina ez dira aurreikusitako inbertsioaren % 60etik gorakoak izanen.

Adierazitako muga horiek kalkulatzeko, kontuan hartu beharreko modulua inbertsio proiektu bakoitza izanen da.

10. artikulua. Azpiabak.

Nafarroako Gobernuak erabaki ahal izanen du atal honetan aurreikusitako araubidearen menpeko abalak helbide fiskala Nafarroan duen elkarren bermerako sozietate batek ematea; horretarako, sozietate horrekin itunduko dira baldintzak, zeinetan Nafarroako Gobernuak abal-emaileordearen izaera izanen baitu.

III. KAPITULUA Finantza eragiketak

11. artikulua. 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 16. artikuluen aldaketa.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik, 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 16. artikulua testu hau izanen du:

"16. artikulua. Zor publikoa jaulkitzeko edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Nafarroako Gobernuari honetarako baimena ematen zaio:

a) Maileguak nahiz kredituak ituntzeko edo zor publikoa jaulkitzeko baimena, 2008ko aurrekontu-ekitaldian zehar mugaegunera iristen direnak berritzeko.

b) Zorpetze-eragiketak egiteko baimena, finantza-aktiboak eskuratzeko helburuz, 34.000.000 euroko mugarekin, eta, behar izanez gero, bestelako zorpetze-eragiketak egiteko baimena. Izan ere, 2008rako aurreikusten den aurrekontu-defizita arintze aldera, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak bestelako zorpetze-eragiketa batzuk hitzar ditzakete, Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluaren jarraibideak errespetatuz, Hitzarmen Ekonomikoak xedatutakoaren eremuan eta aurrekontu-egonkortasunaren arauak ezartzen dituzten mugen barruan."

Xedapen gehigarri bakarra. Abalak emateko prozedura.

1. Foru lege honen II. kapituluan aurreikusitakoaren babesean emandako abalei ez zaizkie aplikatuko Nafarroako Foru Komunitatean abalak emateko prozedura arautzen duen otsailaren 16ko 49/1989 Foru Dekretuan jasotako xedapenak.

2. Ekonomia eta Ogasun kontseilariari baimena ematen zaio foru lege honetan abalak emateari buruz xedatutakoa aplikatzeko behar diren prozedura eta kudeaketa alderdiak onets ditzan.

Xedapen gehigarri berria. Foru Ogasunaren-tzako dirusarrerak konpentsatzeko formula. Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuaren aitzinean formulak kudea ditzan Nafarroako Foru Ogasunak izan ditzakeen dirusarrera txikiagoak konpentsatzeko, foru lege honetako 1. artikuluko bigarren idatz-zatian ezarritako neurri fiskala aplikatuz gero dirusarrerak murriztu egin baitaitezke.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta ordutik aurrera izanen ditu ondorioak.

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer egingen duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako espetxe berriaren proiektua dela-eta sor daitezkeen arazoan aurrean.

JOSÉ JAVIER MONZÓN ROMÉ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Monzón Romé jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer egingen duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako espetxe berriaren proiektua dela-eta sor daitezkeen arazoan aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Jakina da Estatuko Aurrekontu Orokorretan ia 38 milioi euro egiten duen zenbateko bat jaso dela Nafarroako espetxe berria egiteko. Espetxea egitea, zalantzarik gabe, beharrezkoa eta presakoa da, Iruñeko egungo espetxearen baldintzak ikusita.

Jakina da, era berean, Iruñeko alkatearen ahotik entzun baitugu, Iruñeko Udalak helegitea aurkeztu duela Espainiako Gobernuak lurzorua desjabetzearen aurka.

Galderaren testua

Ezagutu nahi dugu Nafarroako Gobernuak gai horri buruz duen iritzia; izan ere, espetxearen kokalekua Nafarroako Gobernuak erabaki zuen. Edonola ere, jakin nahi genuke zer egingen duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako espetxe berriaren proiektua dela-eta sor daitezkeen arazoan aurrean. Izan ere, agerikoa da espetxe egitea beharrezkoa eta presakoa dela, eta pentsatzekoa da Nafarroako Gobernuak politikoki ados dagoela horrekin.

Iruñean, 2008ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Monzón Romé

Galdera, jakiteko zein bideragarritasun plan jarriko da abian Nafarroako Unibertsitate Publikoak paira ez dezan iragarritako itotze ekonomikoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zein bideragarritasun plan jarriko da abian Nafarroako Unibertsitate Publikoak paira ez dezan iragarritako itotze ekonomikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, urriaren 30erako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Zein bideragarritasun plan jarriko da abian Nafarroako Unibertsitate Publikoak paira ez dezan iragarritako itotze ekonomikoa?

Iruñean, 2008ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, jakiteko Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zenbat kontratuk ekarri duten berekin lanpostuak sortzea eta behin betikoz betetzea eta, horrenbestez, lanpostu hutsak eta haiei dagozkien lan eskaintza publikoak, 2007an eta 2008an.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du jakiteko Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zenbat kontratuk ekarri duten berekin lanpostuak sortzea eta behin betikoz betetzea eta, horrenbestez, lanpostu hutsak eta haiei dagozkien lan eskaintza publikoak, 2007an eta 2008an.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du jakiteko aldi baterako zenbat kontratuk ekarri duten berekin lanpostuak sortzea. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- 2007 eta 2008an bederatzi foru dekretu onetsi dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoa aldatzeko. Horrenbestez, sorturiko eta amortizatutako lanpostuen kopurua hau da:

– Amortizatutako lanpostuak: 149.

– Amortizazio horien kargura sorturiko lanpostuak: 152.

– Egiturazko enplegua bateratzeagatik sorturiko lanpostuak: 1.021 (493 lanpostu Osasunbidea-

Nafarroako Osasun Zerbitzuan, 499 irakasle lanpostu Hezkuntza Departamentuan eta 29 lanpostu Administrazio Erroan).

– Lanpostu berriak: 85, foruzainenak

Hona aipaturiko foru dekretu horien zerrenda, haien zenbakiarekin eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zireneko data zehatzarekin: urtarrilaren 29ko 7/2007 Foru Dekretua (2007-02-07ko 17. NAO); otsailaren 5eko 9/2007 Foru Dekretua (2007-02-14ko 20. NAO); maiatzaren 2ko 37/2007 Foru Dekretua (2007-05-28ko 66. NAO); urriaren 22ko 231/2007 Foru Dekretua (2007-11-09ko 140. NAO); abenduaren 17ko 253/2007 Foru Dekretua (2008-01-11ko 5. NAO); otsailaren 4ko 4/2008 Foru Dekretua (2008-02-20ko 23. NAO); otsailaren 25eko 9/2008 Foru Dekretua (2008-03-05eko 30. NAO); otsailaren 25eko 10/2008 Foru Dekretua (2008-03-12ko 33. NAO); eta apirilaren 28ko 41/2008 Foru Dekretua (2008-05-09ko 58. NAO).

2.- 2007 eta 2008ko lan eskaintza publikoan sarturiko lanpostuak 2.295 izan dira; horietatik 1.296 lanpostu hutsei zegozkien, eta 999 dira egiturazko enplegua bateratzeagatik sorturikoak.

Lan eskaintza publiko horiei dagozkien foru dekretuak ondoko hauek dira: urtarrilaren 29ko 8/2007 Foru Dekretua (2007-02-07ko 17. NAO); urriaren 22ko 231/2007 Foru Dekretua (2007-11-09ko 140. NAO); abenduaren 17ko 254/2007 Foru Dekretua (2008-01-11ko 5. NAO); otsailaren 25eko 9/2008 Foru Dekretua (2008-03-05eko 30. NAO); eta otsailaren 25eko 10/2008 Foru Dekretua (2008-03-12ko 33. NAO).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, jakiteko noiz egingen diren Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidearen 15,5 kilometro puntuko lanak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko noiz egingen diren Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidearen 15,5 kilometro puntuko lanak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-170 errepideko 15,5 kilometro-puntuan 2008ko martxoaren 28an izandako luiziarri buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

• 2008ko martxoaren 28an NA-170 errepideko 15+500 kilometro-puntuan lurrerauzketa-ezpondaren luizi bat egon zen, eta errepidea moztuta gera-

tu zen une batez. Mozketak ordu batzuk iraun zuen, galtzadan geratu zen material guztia kentzeko beharrezkoa zen denbora. Lurrerauzketa-ezpondak 10 metroko altuera duenez eta materiala erortzeko arriskua zegoenez, hormigoizko hormak jartzeari ekin zitzaion (T alderantzikatu baten moduan), harri-koskorrak galtzadara eror ez zitezten.

• Behin luiziaren hedadura ikertu ondoren, erabaki zen ezponda eskuzko bitartekoen bidez orekatuko zela, lokabe zeuden bolumen harritsuak kenduz; lan hori langile kualifikatuek egin beharrekona da. Saneamendu horren osagarri, ezpondak babesteko sare metalikoa jarriko da, ezpondaren goiko aldean nahiz behekoan ainguratua.

• Ekainaren 5ean hasi ziren ezponda saneatzeko lanak eta 6an amaitu ziren. Ekainaren 16an ekinen zaio ezpondan sarea jartzeari eta kalkulatzeko lanak hilaren 18rako amaituta egonen direla.

• Obra gauzatzeko aurrekontua 6.248 eurokoa da eta ordainduko da 2008rako "Mugairiko zainketa zentroaren menpeko errepideen zainketa integrala" kontusailaren bidez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n

Herri lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

Galdera, NA-2101 eta NA-150 errepideen arteko bidegurutzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du NA-2101 eta NA-150 errepideen arteko bidegurutzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du NA-2101 eta NA-150 errepideen arteko bidegurutzeari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren istripuen datu-basea kontsultatu ostean, bidegurutze horren inguruetan 3 istripu gertatu dira; horietatik bakarrean egon dira bi ibilgailu inplikaturik, bidegurutze-

ko pasatze-lehentasuna ez errespetatzeagatik elkar jo zutenak. Istripua 2004ko maiatzaren 30ean izan zen, eta zauritu arin bat eta ibilgailuetan kalte materialak eragin zituen.

2006ko uztailearen 30ean gertatutako istripua, non motorzale bat hil zen, motorrak errepideko bihurtzean derrapatu zuelako gertatu zen, inplikaturiko beste ibilgailurik egon gabe; beraz, istripu horrek ez du zerikusirik bidegurutzearekin.

Hirugarren istripua, 2007ko maiatzaren 28koa, 84 urteko gidariak konortea galdu zuelako gertatu zen. Gidaria errepidetik atera zen eta finka batera sartzeko dagoen pasagunearen inpostarekin talka egin zuen.

2. NA-150 errepidearen tarte hori duela urte gutxi batzuk aldatu zen, eta hirugarren erreia bat eraiki zen ibilgailu astunentzat; hortaz, ez dago asmorik inolako jarduketarik egiteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 12an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Laura Alba Cuadrado

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluko kideak izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak, 2008ko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea; hauek izanen dira:

– Amaya Otamendi Claramunt andrea.

– José M.^a Vázquez Royo jauna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea, hala ezartzen baita Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan.

Iruñean, 2008ko urriaren 24an.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	